

Peru Abarka Album Lehiaketa

Guztira 14 lan aurkeztu dira, gehienak Euskal Herrikoak baina baita kanpokoak ere. Yolanda Larreateguiren idazlan saritua oinarri hartuta landu ditu ilustrazioak Amenabarrek. Irailaren 1erarteko epea izango du lana amaitzeko eta albuma urriaren 24an aurkeztuko da.

Arte Ederretan graduatua da Amenabar (Larrabetzu, 1994). Ilustrazioa, kartelgintza eta animazioa landu ditu, proiektu indibidual zein kolektiboen bidez. Besteak beste, Txakur Gorria sormen kolektiboaren partaide da. Peru Abarka lehiaketa irabazten duen bigarren aldia da; izan ere, 2018an ere garaile suertatu zen “Ezpainetakoa” lanarekin.

“Kaiola” lanaren inguruan ondorengo balorazioa egin du epaimahaiak: “Album ilustratuetan hainbeste eskertzen dugun ekarpen berria eskaintzen digu Amenabarren proposamenak; testua abiapuntu hartuta, harago doa marrazkiekin ilustratzailea, barneratutako istorio horri ate berriak irekiz. Ekarpen pertsonalak egiten ditu, baina guztion iruditegiari keinu eginez aldi berean: txoriak, kaiolak, hegoak, lainoak, basoa... Elementu guztiak bihurtu ditu protagonista, bidaia baten sinbolo. Metafora eder batekin osatu du protagonisten bikotea, “Kaiola” goiburuak iradokitzen duenari jarraituta: kaiola, motxila, bidaia eta bidaideak”

